

ERREFUXIATUENA (IZARO)

Utzidazu kontatzen ze den itzultzea,
utzidazu kontatzen urdinen artean,
utzidazu ze ederra den jakitea.

Maiteko zaitudala beste aldean

utzidazu kontatzen izarren artean
utzidazu laztantzen akorde hauetan.

Utzidazu kontatzen ze den zu ikustea
utzidazu kontatzen ze ederra den
itzulera.

Elkarren besoen zabaleran, ah, ah, ah
zure fede guztiei eustea
zure malkoak baretzean.

Utziezu kontatzen behin ume zirela
amestu zutela beste aldeaz.
Hegan egiteko hegoak bakean bizitzeko
ez dute besterik nahi gaur
dantzatzeko ze ederra izango
itzulera.

Elkarren besoen zabaleran, ah, ah, ah
zure fede guztiei eustea, zure min
baretzean.

Ze ederra izango den itzulera
Elkarren besoen zabaleran, ah, ah, ah
zure fede guztiei eustea
..... min malkoak baretzea